

bidegileak



Antonio Arzak (1855-1904)

Egilea:

INES PAGOLA

Bizitzako urratsak

Antonio Arzak Donostian jaio zen 1855eko uztailaren 26an. Handik bigunera, San Bizente elizan, *ko*xkeroen elizan, bataiatu zuten Antonio Biktor izenak ezarriz. Uria auzoan, *Baderas* izeneko famili etxean jaio zen, familia aberats batean. Bere gurasoak ere, Manuel eta Antonia Ramona Justa, Donostian jaioak ziren. *Baderas* etxe hau, geroago, Nôtre Dame komentua izango zena, moja-kongregazio batek erosi zuen 1882an. 374m²-ko hiru solairuko etxe bikaina, gainera, 215 m²-ko bigarren etxe bat, ukuilu eta bestelakoak zituen, dolarea eta 850 m²-ko jardin ederra. Auzoan beste bi etxe zi-

tuen: Pasai aldera, *Bellabista*, eta Donostia aldera, *Etxeberri*. Manuela Otañok, Arzaken be-soetakoaren alabak, A. Zabalari esan zionez, bertan dozena bat zerbitzarik baino gehiagok egiten zuen lan.

Ez zuen orduko Ategorrieta alde hark gaurkoaren antzirik. Etxe gutxi eta belardi ugari zegoen orduan; etxeak ere, arzaktarrenaren



Antonio Arzak Alberdi (1855-1904)

antzera, etxe baino baserriago ziren. Ez da, bada, harritzekoa Arzakek «nekazari jaio nitzan, ez det lotsarik aitortzeko» idatzi izana. Ez da harritzekoa bere burua menditarizat jotzea, *Mediyak* (1888) poesian dioen bezala:

Mendiko umea naiz,
mendiya det maite,
ez nitzake biziko
menditik aparte.



Donostiako San Bizente eliza. Bertan bataiatu zuten Antonio Arzak; *koxkeroa* —Santa Maria elizan bataiatuak, aldiz, *joxemaritarak*— beraz, Marzelino Soroak asmatutako hitza erabiltzen badugu

Eta gaur kalean, ai!
bizi banaiz ere,
ez naiz bizi mendira
begiratu gabe!

Giro horretan bizitzetik datorkio, behar bada, izadiarenganako maitasuna. Ondoko bertsoak *Zerura* (1894) olerkikoak dira:

Baso eta mendiyak
ikusten nituen,
ta begira...begira...
ez nitzan aspertzen!
O zer edertasunak
gordetzen dituzten!

Naturak liluratzen du, haren bitartez sentitzen baitu Jainkoa bere handitasun eta misterioan:

Esan: nork eman dizu
dezun eztarria?
Zure musika orrek
non du, non, sortzia?
Zer da zuk arriturik
gizona uztia?
O... zeñ aundia zeran
izanik txikia!

Agur, bada, txoria,
segi, bai, kantari,
beregana pentsatzera
deitzen gizonari;
belauniko jartzen naiz
ni Egilleari,
kanta guztien kanta
da otoitz Jaunari!

(Maite, 1887).



Ategorrietako *Nôtre Dame* komentua. Bertan zegoen Antonio Arzaken *Baderas* jaiotetxea, baina 1882an bere gurasoek, zergatik ez dakigula, Angleteko *Siervas de María* moja kongregazioari saldu zioten



Groseko hondartza eta Ulia mendia, Arzakek bere *jaiotz-mendia* deitzen duena: *O Ulia, ilko naiz/ beti zu maiterik!* (1890)

Arzaken ia lan guztietan, eta, bereziki, olerkietan deskribatzen da natura, betiere, ikusten eta entzuten duenak beregan sortzen dituen sentimenduen arabera, eta, izan ere, hiztegi aberats baten jabe izateaz gain, badu horretarako etorri berezia. Aipatzekoak dira *Zerura* eta *Joxe* poema liburuetan, Donostia inguruko mendietan barna ehizean edo paseatzen dabilela, egiten dituen deskribapen bizi eta kilikagarriak.

Donostian pasa zuen bere bizitza, baina, *Kantauriko perla* biziki maite bazuen ere, nahiago zituen mendiak; gogokoago, baserriko bizimodua. «Nere Donostia maite detalarik, ez da neretzat egiñ urrezko kaiolik» dio 1898ko *Sufritzen* olerkian.

Lore Jokoetako Idazkari

Donostiako Udal Liburutegiko Zuzendari izan zen. Liburu on askorekin aberastu zuen liburutegia eta, batez ere, bere azken lana izan zen *Catálogo por orden de materias y alfabético de autores* (1904) izenekoarekin. 1884an, J. Manterola hiltzen denean, *Euskal-Erria* aldizkariko zuzendari izendatzen dute, eta zuzendaritza lanetan jarduten du 1904an hiltzen den arte. Orduan, bere lagun min Frantzisko Lopez Alenek hartzen du haren lekua. Hogeitaz izan zen Donostiako eta Konsistorioak antolatzen zituen Donostiatik kanpoko Lore Joko edo Euskal Festen Konsistorioko Idazkari. Historiaren Errege Akademiako eta Frantziako Arkeologiako Batza-



Joan den mende hasierako Donostia

rreko urgazle izan zen. Euskaldun-Fedea antzerki-taldearen (1896) eta Donostiako Kantaritalde edo Orfeoia (1896) sortzaile-etariko bat izan zen, eta Orfeoiko Ohorezko Lehendakari. Oso musikazalea zen, nonbait, eta gaian aditua. Donostiako udal bandak behin baino gehiagotan jo omen zituen hark sortutako doinuak.

Donostian bizi eta Donostian hil zen, berrogei eta bederatzi urte zituela —eta, halere, ezkondu gabea—, 1904ko urriaren 11n, bat-batean bihotzekoak emanda, elizakoak har-

tzeko ere betarik gabe. Arreba alargun Josefaren etxean hil zen. Haren hil-berriak atsekabe handia zabaldu zuen Euskal Herrian eta, bereziki, Donostiako euskaltzaleen artean: «Bera zan gure argibidea, berak gidatzen ginduan, euskal zaliak gelditu gera ume zurtzaren moduan» (Bitoriano Iraola); «Aspaldiyan euskerak ez dauka onikan, semeak badijoaz bere ondotikan, ama eri utzita biyotz erditikan» (Jose Marino Arrieta). Garaiko prentsak idazki sentikorrak eskaini zizkion, eta *Euskal-Erria* aldizkariak, zenbaki berezia. Buen Pastor eliza jendez bete zen haren elizkizune-



Joan den mende hasierako donostiarak Garibai kalearen kantoiko Kutz kafetegiaren terrazan

tan. Hara bildu ziren Donostiako Alkate Elosegia jauna, udal gizonak, kultur gizonak eta herri xehea. Udalak gogotik goraipatu zituen haren lana eta euskaltzaletasuna eta dolumin sentikorra azaldu zion arreba bakkarrari Donostia hiriaren eta Euskal Herri osoaren izenean. Elizkizunen gastuak ere Udalak ordaindu zituen. A. Zabalak dioen bezala, tamalez ez da bete Arzaken hil-berria ematerakoan *El Pueblo Vasco*k eskatzen zena: liburuxka eta aldizkaritan sakabanaturik dauden haren poema sentiberak, bertso politak eta gogoeta ederrak biltzea eta argitaratzea, alegia.



Franzisko Lopez Alen, *Mendiz-mendi* (1866-1910), Antonio Arzaken *adiskide maitea*, eta, hura hiltzean, *Euskal-Eria* aldizkariaren Zuzendari izango zena. Lore Jokoetan hainbeste sari irabazia zen, non, azkenerako, lehiaketaz kanpo utzi baitzuten

Lore Jokoen belaunaldia

1876an, Arzakek 21 urte dituenean, galtzen dira foruak. Gertakizun garrantz honek tristatzen eta abailtzen ditu euskaltzale asko, baina ez, haatik, hondoratzen; aitzitik, akuilatzen ditu eta suspertzen. Ideia autonomistek indarra hartzen dute eta bidea zabaltzen diote, urte gutxiren buruan, Arana Goiriren eskutik sortuko den abertzaletasunari. Aldi berean, euskara eta euskal kulturarekiko interesez bizia pizten da. Donostian J. Mantero-



Donostiako Udaletxe zaharra. Bertako liburutegiko Zuzendari izan zen Antonio Arzak



Euskaldun-Fedea antzeztaldearen sortzaileetarikoa bat izan zen Antonio Arzak. Argazkiaren erdi-erdian, Jose Zapiain Irastorza, eta haren inguruan, besteak beste, Zapiain (*Chapillo*), Juanita Andonegi (ezkerretara), Matilde Tapia, Miguel Salaberria, Gelbenzu, Ganboa, Domingo Andonegi, Felipe Kasal, Etxebeste eta Pepe Artola



*Txanton Piperr*i operaren oinaztarren koroa (1899). Lehen emanaldia Donostian izan zen 1899an. Musika Zapiainek jarri zuen, eta Alzagak, letra. Arzakek dioenez: *Denok txoratu giñan/ iñioz ez bezela,/ ikusirik mutillak/ ta gizasemiak/ euskerazko lan ontan/ aiñ fedez betiak,/ aiñ egoki, aiñ garbi,/ aiñ zoragarriak*



Donostiako Artzai Onaren eliza. Bertan izan ziren
Antonio Arzaken elizkizunak

lak *Euskal-Erria* aldizkaria (1880-1918) sortzen du; Iruñean *Revista Éuskara* (1878-1883) eta Gasteizen *Revista de las Provincias Éuskarras* (1878-1879) sortzen dira. 1879an egiten dira mugaz alde honetako lehen Lore Joko edo Euskal Festak. Kanpionen *Gramatika* 1884an argitaratzen da eta Aizkibelen *Hiztegia*, 1883-1885 bitartean. 1886ko Durangoko Euskal Festetan Arístides Artiñanoren *Proyecto de Academia Bascongada* saritzen da; urte bete beranduago, Aureliano Galarzak Bizkaiko Aldundiari eskatzen dio sor dezan euskarazko katedra bat Gipuzkoak eta Arabak jada dutenaren antzera. Ezaguna da, Bizkaiko Katedra Azkuek —besteren artean, Unamuno eta Arana Goiri lehiakide zituela— irabazi zuela. Giro honetan, euskal literatura itxuraldatuko duen izpiritu berria sortzen da. I. Sarasolarekin ados, *literatura* hitza zentzu hertsian hartzen badugu, orduan hasten da euskal literatura.

Mugimendu hau sortzen da Donostian, Lore Jokoen Konsistorioaren egoitzan. Literatur pizkunde honetan zeregin erabakigarria dute Lore Jokoek, eta konpli da, aurrera baino lehen, hauei buruz zerbait esan dezagun.

1323an sortzen da Tolosa hirian *Consistori del Gai Saber* edo *Sobregaia companhia dels set trobadors de Tolosa* izeneko erakundea eta, honekin batera, Lore Jokoak. Gainbehera zetozen Probentzako trobadoreen literatur ereduak mantendu eta bultzatzeko sortzen diren lehiaketa poetikoak dira Lore Jokoak,



Euskal-Erria (1880-1918) aldizkariaren azala. Bertan argitaratu ziren Arzaken —eta bere belaunaldikide askoren— lan gehienak. Garrantzi handiko lana egin zuten garaiko aldizkariak eta, bereziki, *Euskal-Erriak* belaunaldi berriaren lanen zabalkunderako behar zen azpiegitura eskainiz



Euskal Itz-Jostaldien Bilguma Berezia edo Konsistorioa (1909). Zutik ezkerretik eskuinera: Joakin Baroja, Franzisko Lopez Alen, Pepe Artola, Jose Zapiain, Toribio Alzaga. Eserita ezkerretik eskuinera: Blas Pradere, Alfredo Lafitte, Migel Salaberria

hala deituak, urre-zilarrezko loreak ematen zirelako saritzat. Handik urte batzuetara, 1393an, katalanek beren lehen Lore Jokoak egiten dituzte Bartzelonan, Tolosakoen ereduari jarraituz. XVI. mendean galtzen dira eta 1859an berreskuratzen Udalari, Milá y Fontanals, Balaguer, Rubió y Ors eta Kataluniako *Renaixença*ko beste zenbait kultur gizoni esker. Hemendik aurrera, Bartzelonan ez ezik, Kataluniako beste probintzietara ere zabaltzen dira. Konsistorioak, «Fides, Patria, Amor» ikurpean, hiru sari nagusi banatzen ditu gai libre, patriotiko eta erlijiozkoen artean.

Hogei urte beranduago, 1879an, hasten dira Lore Jokoak gure artean: uztailan, Elizondon, eta irailean, Donostian. Elizondokoak *Nafarroako Euskara Elkargoak* antolatu zituen H. Oloriz, S. Etxaide, A. Sagaseta, M. Ormaetxea eta A. Kanpionek urte bereko urtarrilean egindako eskaerari erantzunez. Abelgorri, ttuntun jole, korrikalari lehiaketa eta pilota partidekin batera, literatur lehiaketak soilik poesiarako deialdia egin zuen. Lehen saria, ehun eta hogeita bost pezetakoa, Arrese Beitiaren *Ama Euskeriari Azken Agurrak* poesia-lanak eramanean zuen. Gerta zitekeenaren bel-

dur baitziren, ez zen egile izenik argitara eman. Han agertu zen Iparragirre, eta, diotenez, oinez heldu zen festetara. Manterolak antolatu zituen Donostiakoak, Udalaren babesarekin. Hauetan, Elizondokoetan ez bezala, hitz larri edo lauzko lanak ere eskatzen ziren eta lehen aldiz saritu ere ziren. Aurretantzean, deialdietan hitz neurtuzko eta hitz lauzko lanak agertuko dira, eta, 1882tik aurrera, baita antzerki-lanak ere. Luis Luziano Bonaparte Printzea eta Antoine d'Abbadie «jaun jakintsua» izan ziren gonbidatuak «izanik gogoan ark [d'Abbadiek] moldatu zituala lenengo, oraiñ dala ogei ta geiago urte, jolasbide antz onetakoak Euskal-errian». *Antz onetakoak* dio, eta ongi dio; alde nabarmena baitago 1853 ezkeroztik, batez ere, Urruñan eta Saran, d'Abbadiek antolatzen dituen Euskal Besten eta mugaz alde honetako Lore Jokoen artean. Abelforri eta barazki txapelke-

tak; pilota partidak; irrintzilari, txistulari, dantzari eta korrikalariak; bertsolari saioak, eta azken-azkenik —jasotako sarien balioa irabazleen axolaren adierazletzat har badaiteke, bederen—, koplari eta neurtiztarien guduak. Gudu hauek, gainera, salbuespenak salbuespen, ez zuten bertsolaritza maila gainditu. Euskal Besta hauek, bada, gertakari folkloriko huts izan ziren.

Elizondo eta Donostiakoen ondoren, 1880an, Begoñan eta Beran izan ziren Lore Jokoa. Donostiakoei dagokienez, urte honetatik aurrera, Udalaren babesari Aldundiarena gehitzen zaio. 1881ean, Irunen eta Donostian izan ziren; 1882an, Iruñean, Bilbon, Oihartzunen eta Donostian; 1883an, Iruñea, Markina, Hondarribia eta Donostian. Eta honela doaz urtez urte hedatzen eta zabaltzen, betiere, Donostiak bere nagusitasuna mantentzen duela. 1884ko Konsistorioaren izkribatzai-

1884ko Donostiako Lore Jokoen Oroimengariaren azala. Konsistorioko idazkari izateaz gain, Lore Jokoean parte hartu eta saririk ere irabazi zuen Antonio Arzakek



«Aizkibel-en euskal-gaztelanizko Iztegi famatuaren liburu ederkiro apaindutako bat» maiz agertzen da Lore Jokoei banatzen dituzten sarien artean. Hiztegiaren harpidedunen zerrendan, besteak beste, Arzak bera, B. Iraola, M. Soroa,... aurki ditzakegu

leen indar-neurtzearen deialdia —bertan agertzen da lehendabiziko aldiz Antonio Arzak Batzarraren Goarpelari edo Idazkariaren sinadura— aukeratu dugu Lore Jokoetan eskatzen zenaren eta ematen ziren sarien erakusgarri, aldaketa gutxi batzuk gorabehera, urtero errepikatzen baitira antzeko eskari eta sariak: 1. «Aizkibel-en euskal-gaztelanizko Iztegi famatuaren liburu ederkiro apaindutako bat, euskal irakurgai edo gure aurrekoai aditutako kondairen bat itz-larrietan obeto ipintzen duenari». 2. «Zillarrezko luma urrezestali bat, donostiar argidotarren (famatuena, aipatuena) bizitzeeen gañean, itz-neurtu edo larrietan, lanik onena aurkezten duenari». 3. «Zillarrezko erramu adar bat, itz-neurtu edo larrietan, jostiruditar saiorik (lan dramati-

ko, antzerki-lan) onena aurkezten duenari». 4. «Artez edo manoro egintako zerbait gauza (arte objektu bat), edozein gai eta neurritan jarritako biursakintza (poesia) ederrenaren egileari». 5. «Zillarrez apaindutako makilla bat, Ama Santisimari Euskal-lurrean egin zaizkan eleizatxoetatik edozeinen gañean izkribu kondairazko edo aditutakorik onena agertzen duenarentzat, dala itz-larri nola neur-tuetan». 6. «Urre-zillarrezko kololtxa (paleta txiki) bat aurreko gaian esantako eleizatxo edozeinen pintura edo antzestarik onena [...] aurkezten duenarentzat». 7. Artezko objektu bat euskal errefrau-sorta garbi onenaren egilearentzat. 8. «Sei sari, dibujatzeko estutxe edo beste orlako gauzen batzuek, 10tik 15era urte bitarteko sei mutill gazte,



Gipuzkoako Foru Aldundia, Udalarekin batera, Lore Jokoen babesle izan zena



Marzelino Soroa Lasa (1848-1902). Arzaken adiskidea, gimnasiako irakasle zirkuan ibilia, itzultzaile, poeta, baina, batez ere, euskal teatro modernoaren aita

euskeraz ondorena irakurri eta izkribatu hogei minutuan egiten dutenentzat». 9. «Zillarezko medalla bat, Nafarroko Euskal-Elkar-goak eskeña» Gipuzkoak zeuzkan Foru eta eskubideak eta probintzia honen Foru-antolaketa nolakoak ziren ondoen azaltzen duenari. 10. Artezko objektu bat, *Unión Artesanak* eskainia, Donostiako inauteriei buruzko poesia-lan onenari. 11. Brontzezko arte-objektu bat, Donostiako *La Fraternalak* eskainia, «Euskal-erriko kondairazko egintza baten gaiñean izkribu-lanik onena itz larritan aurkezten duenarentzat». 12. «Gernikako arbola-ren ostoa-kin egintako koro bat [...], errebista *Euskal-Erriaren* Zuzendariak eskeña, kantarik (oda-

rik) onena aurkezten duenarentzat gai onen gaiñean: *Jaungoikoa eta Fueroak*».

Lore Jokoen eta *Euskal-Erria* aldizkariaren inguruan biltzen den idazle taldeak euskal literaturan berriak diren generoak lantzen ditu. Zerrenda luze samarra osatzen dute idazle hauek: Marzelino Soroa, Bitoriano Iraola, Ramon, Pepe eta Rosario Artola, Franzisko Lopez Alen, Antonio Arzak, Kaietano Santxez Irure, Blas Pradere, Felipe Kasal Otegi, Toribio Alzaga, Gregorio Arrue; Arturo Kampion, Karmelo Etxegarai, Domingo Agirre,... Guztiak dira eskolatuak; gehienak, laikoak, lanbidea dutenak eta literatura, noizbehinkako eginkizun. Urria da idazle bakoitzaren ekarria, baina guztien artean ematen diote gorputza aro berriari. Orain hasten da euskal teatro moderno. 1882 ezkerotik, Lore Jokoen Konsistorioak antzerki-testuak sartzien eta antzespenak antolatzen ditu. Santo Tomasetan, inauterietan, festatan egiten dira antzespenak, Donostiako Antzoki Zaharrean. Antzerki hau sinplea da oso, irri eginarazteko moldatua, Donostiako hizkeran emana; ikus-entzulego zabal baten oso gustokoa. Orain hasten da Euskal prosa narratiboa, kontaketa idatzia. Konsistorioa bultzatzaile da arlo honetan ere; lekuko dira hitz lauuko lanei eta, bereziki, garaian hain modan zeuden leiendei urteoro emandako sariak.



Ramon Artola (1831-1906), eserita, bere seme-alabekin: aldamenean, Rosario (1869-1950); ezkerretik eskuinera, Juan Ramon, Francisco eta Pepe (1864-1929)

Larramendiren eragina

izkuntza bide berrietatik abiatzen da. Hiztegi-arazoak dira nagusi tradizio-rik gabeko ibilbide horietan, eta hauen konponbidea Larramendiren hiztegian aurkitzen da. Ordu arte inork ez bezala erabili zituen belaunaldi honek Larramendiren neologismoak, bereziki, Lore Jokoen Konsistorioak bere agiri ofizialetan. Konsistorioak hizkuntza tekniko standard bat, guztiz larramenditarra, sortzen eta finkatzen du: mende laurden bat baino gehiago iraungo duen tradizioa, Euskal Herriak izan duen literatur teknikoaren tradizio iraunkorrenatarikoa. Hizkuntza standard honetan idazten dira Lore



Okendoren estatua. Arzakenak dira oinaren idazkuna eta estatuaren lehen harria jarri zeneko agiriaren itzulpena; Arzakenak, Okendo Itsasagintariari opatutako ondoko bertsoak: *Or...Ulia mendiko itsas ertzia/ mundura jaio ziñan, zorionian/ gloriyaz betetzeko gure erriya,/ Kantauriako perla dan Donostiya*

Jokoen agiriak ez ezik, Gipuzkoako Udal, Al-
dundi eta antzeko erakundeen agiriak ere.
Arzakek ere, hala, gaiak eskatzen duenean;
Okendoren estatuaren lehen harria jarri ze-
neko agiriaren itzulpenean (1887), adibidez:

Eta aurkezten da, azkenik, Uri ontako urkondear ta Iruñako Dakiregiko barrutiko dan Eskribau erreal eta ezagutu bean agertzen dana, zeña deitua izan dan egintza au nola gertatzen dan fede jakinez azaltzeko.

Lendabizi, esantako jaun txit geidiati eta argidotar Vitoriako eliz-barruti ontako Apezpikuak bedeinkatu zuen ontarako oiturtzen diran oitortz eta bainandeakin, len esan dan On Antonio Okendo-ko Españaiko itxas-agintariaren oroitzak beti iraun dezan altxatzen zaion oroikarriaren lenbiziko arria, zeña jarria izan zan arren zimendutarako siñalatua zegoen tokiyan, arri onen

beraren gañean berunez estalitako burnizko kutxa bat ipiñirik [...]. Ondoren, Bere Aundientz Erreiñuko Erregiñ Gobernuta-riak bota zuen esantako arriaren gañera zillarezko palatxo batekin lenbiziko naskarill parte, izanik orduan bertan atsegiñ eta pozez ojukatuak Beren Aundientzak, Españiar onziditalde portu onetara egintza ontarako etorririk, aurrez-aurre ageri danagandik, ala nola Uri ontako biztanle eta emen arkitu diran kristau guziakgandik.

Larramendiren asmakizunak dira *urkondear*, *vecino*; *dakiregi*, colegio; *egintza*, acto; *txit geidiati*, excelentísimo; *argidotar*, ilustre; *bainande*,



Donostiako Santo Tomaseko feria. Santo Tomas egunean banatzen zituen Konsistorioak Lore Jokoetan irabazitako sariak; antzerki antzezpenak ere egun horretan egiten ziren

condición; *itxas-agintari*, almirante; *oroikarri*, monumento; *aundientz*, magestad; *gobernutari*, regente; *naskaril*, argamasa; *onziditalde*, armada naval (Larramendik, *ontzidi dakar*); *biztanle*, habitante. Joskera nahasi samarra ageri du pasarte honek; hiztegi-arazoak bakarrak ez direlako seinale. Arzakek, baina, ez du beti honela idazten; beste idazleetan bezala, hizkuntza jaso hala larramenditarrago egiten da. Poema gehienak ditu, eta are hitz lauzko lanak, euskara erraz, bizi donostiakoan idatziak; *Legenartsua* leienda, Juan Iturralde y Suiten *La leprosa* ren itzulpena, aldiz, guztiz larramenditarra da, eta ez da harritzekoa, jatorrizkoaren idaztan-kera harro, gora aldatu behar baitu.

Giro artistikoa ez zen aproposena balio handiko literatura sor zedin. Sasierromantizismo historizista atzeratu bat zen nagusi Euskal Herrian, idazki apokrifoetan oinarriturik, foruen defendatzaileek behar zuten tradizioa sortu zuena. Gaiak —zenbaitek *Materia de Vasconia* deitu dutena— behin eta berriro errepikatzen dira: euskaldunen eta Gaztelako Koroaren arteko hitzarmenak (Jaun Zuria, Arrigorriaga); euskaldunak, Espainiako lehen biztanleak; Euskal Herriaren beregain-tasuna, are erromatarren garaian ere; euskaldunen jatorrizko monoteismoa eta haien ebanjelizazio goiztarra; Erdi Aroko euskaldun bulardetsu, garaitezinen gestak.




Donostiako inauteriak (1909)

Euskarazko lanak

Euskaraz eta erdaraz idatzi zuen Arzakek; hemen, baina, bakarrik euskarazko lanen berri emango dugu, gaztelerazkoetan euskal gaiak maiz jorratu bazituen ere. 1879an irten zen argitara Arzaken lehen lana: *Azken Agurrak gure Etsaigoari*. Poesia-lan honekin hasi, eta hil arte ez zion idazteari utzi. Bost poema liburuxka kenduta —*Maritxo* (1893), *Zerura* (1894, *Joxe* (1897), *Sufritzen* (1898) eta *Amona* (1900)—, haren lanak aldizkarietan ikusi zuen argia: Iruñeko *Revista Éuskara*, *El Pueblo Vasco*, Buenos Airesko *La Vasconia*, *Pisto Social*, *Uniónen*, baina, batez ere, *Euskal-Erria* aldizkarian. 1990ean Euskal Editoreen Elkarteko *Klasikoak* sailean Arzaken bi leienda (*Patxi ta Kontxesi* (1884) eta *¡Aztua!* (1883ko Hondarribiko Lore Jokoetan sari-tua) jaso zituen Ana M.^a Toledok. Lau urte

beranduago, goian aipatutako *Legenartsua* (1884) leienda, Juan Iturralde y Suiten *La Leprosaren itzulpena*, jaso nuen nik sail berean. 1995eko Auspoa Liburutegiko berrargitalpena da, baina, inportanteena: Arzaken *Idazlan-Sorta*.

Batez ere hitz neurtuz idatzi zuen. Aipatutako bost poema liburuxkak kenduta, beste guztiak —ehun eta laurogei inguru— poema solteak dira; askotan, laburrak —are lerro bakarrekoak—, pentsamentu edo sentipenen bat kanporatzeko papereratuak. Batzuk bertsolarien metrika klasikoan ematen ditu; beste batzuk, berriz, Antonio Zabalak dioenez, berak asmatutako bertso-mota berriren batean. Poema asko haren belaunaldikideek (K. Etxegarai, D. Agirre, J. Manterola, J.V. Arakistain, A. Kanpion, M. Soroak, besteren artean) itzuli zituzten gaztelerara. J. Verdaguer-



Antonio Arzaken *Maritxo* poema liburuxkaren orri pare. Bost poema liburuxka kenduta, beste guztiak poema solteak dira, garaian ohikoa zen bezala

Lore Jokoetan; *Euskal Izatea* (1899), Oihartzungo Konseju-etxean, beste askoren artean. Idazki erlijiosoak ere baditu, besteak beste: *Jesus Biotza* (1882), Mendibururen ohoretan; *Gauzik ederrena* (1883); *Onentzaro* (1895). Askotariko gaiak lantzen ditu beste zenbaitetan, hala nola, *Iparragirre* (1890), euskal liburuak (Mendiburu, Larramendi, Iztueta, Kardaberazanak), *Victor Hugoren Itzkribu euskarara biurtua* (1902), *Bilintxen ateraldi bat* (1903), eta abar. Gorago ikusi bezala, literatura teknikoa ere ez zaio arrotz; ohar bedi urte askotan izan zela Euskarazko Hitz-Jostaldien Goarpelari edo Lore Jokoetako Idazkari.



17



Jose M.^a Zubia, Aita Mariaren estatua (1900). Arzakek idatzi zuen oinean dagoen idazkuna: ¡Mari! Urikalduak salbatu nayaz/ Eman zenduben biziya, / Ta gaur daukazu, goitaltxatuaz/ Obiz itsaso aundiya:/ Lo egin zazu бага соñuaz.../ O gizon miragarriya!! Onraturikan zure gloriyaz/ Donosti ta Kantauriya. Argazkia 1933an egina da. Bertan, besteak beste, Bizente Lafitte eta Obieta eta kaiko erretore Cendoya jauna



Beti omen zeraman Antonio Arzakek argazkian ageri duen bezalako gorbata txiki beltza. A. de Loyartek dioenez, Foruak galdu zirenean jantzi zuen kolorekoa kenduta, eta hil arte eraman

Lehen poema

Azken Agurrak gure *Etsaigoari* da, beraz, Arza-
ken lehen poema, Donostiako 1879ko Lore
Jokoetan saria lortu zuena. Hilabete batzuk
lehenago, *Ama Euskeriari Azken Agurrak* poe-
marengatik Arrese Beitiak Elizondoko Euskal
Festetako lehen saria jaso zuen. Kanpionek,
Arrese Beitiaren poema famatuaz ari dela,
dio: «Marca un nuevo periodo en la poesía
eúskara; por primera vez ésta deja de ser
popular y se eleva al rango de trascendente:
la profunda personificación de la raza en la

lengua es una prueba incontrovertible». Izan
ere, euskarak Euskal Herriaren metonimia
bezala funtzionatzen du lehen aldiz poema
honetan; hiztunek hizkuntzaren ezaugarriak
(antzinatasuna, garbitasuna, noblezia) berega-
natzen dituzte. Bi poemen izenburuak alde-
ratu besterik ez dago, Arzakenak —Arrese
Beitiari donkitua, opatua— bestetik edan
duela, bestearen bertsio baikorragoa dela
susmatzeko:

Ama Euskeriari Azken Agurrak

¡Ill da Euskera! Ill da Euskera.
¡Betiko itxi dauz begiak!
¡Negar Arabak! ¡negar Gipuzkoak!
¡Negar egin bei Bizkayak!
¡Negar arkaitzak! ¡negar mendiak!
Agortu arte iturriak,
Ainbeste geiso, ainbeste gatxen
Osasun emongarriak.

¡Negar Naparrak, geure anayak,
Ta euskaldun Frantziakuak!
Neugaz batera danok urratu
Sentimentuz soñekuak,
Aztu istoria edo kondairak
Emengo antxiñakuak,
Ta euren lekuan asi barriak
Aurrera erdarazkuak.

Azken Agurrak gure Etsaigoari

Ea bada, kuraya nahi luke Gipuzkoak,
Kuraya erantzuten du batian Bizkayak,
Kuraya Naparroak, kuraya Arabak,
Kuraya gere anai franzes-euskaldunak.

Ez Felipe, ez; azken agurrak
Deserakida joanari;
Eta biotzetik, fedez beterik,
Esan zaiogun Amari:
«Atoz, Amatxo, arren, onera,
Zure semeen artera;
Zu gabetanik ez degu izan nai,
Illtzen bazera, illko gera.
Baña ez!
Beti gugatik biziko zera,
Sekulan illko etzera».

Elkartasun deia

*S*eroko hitz neurtuzko zein hitz lauzko bere lanetan ere ageri du lehen poema honetan duen ikuspegia. Duen kristau sinismen sutsutik datorkio jarrrera baikorra. Foruen galerak Euskal Herria negar-erri, deserri bihurtu badu ere, bada esperantza baldin euskaldun guztiak —zazpi probintziak bat eginik— elkartzen bagara: azken agurrak, bada, gure etsaigoari («etsaitasunari» ez, «etsaiei»). Ideia bera, kasu bakar bat aipatzearren, Tolosari *San Juan bezpera gaberako*, 1882 poeman ere:



Antonio Arzaken marrazkia, Biktoriano Iraolak egina (1894)

Mendarte estu triste batean
arkitzen gera sarturik,
aritz bat dago gure aurrean,
galdua, ai!, igaturik;
txapel gorri bat alde batetik
eta txuri bat bestetik
dauzka zintzillik adarretatik,
erdian gorputz bat... illik! [...]

Ez milla bider! Elkar gaitean
gorroto txarrak itorik!
Euskal biotzak, atozte onera
ta, gorputz au ikusirik,
penaz ta damuz gañez egiñik
ta belauniko jarririk,
esan zaiogun Aita San Juani:
«¡Elkar gaitzazu zerutik!»

Euskarekiko esperantza

Bada esperantza euskarak dirauen bitartean, eta badirau, ez da hilko, hiritik kanpo, goietan, baserritarrak eta itsasertzean, arrantza-leak euskaraz bizi direlako, eta euskaraz bizi diren heinean, Jainkoaren legearen, Lege Zaharren (= Foruen) arabera bizi direlako:

Dira [oitura onak] egiazko Fueroak, iñork kenduko eztizkigunak, geok galtzen ezpadi-tugu, geon buruak galdurik.

Eta zerk gordeko dizkigu oitura oek? A!... Oen kutxa miragarria dan Ama Euskera, zeinaren barruan arkitzen eztan itz arneguzko edo blasfemiarik; eta gure aboak, sugeak pozoia bezela, blasfemiazko itza bota bear badu, aztu dezagun bertatik gure izkuntza betiko [...]. Ill bear badu, ill bedi mantxarik gabe. Baña ez! Ezta illko, ezta illko. Erri batzuetatik euskal oiturak galtzen badira, negarrez erretiratuko da; baña beti, beti arkituko da Aloña eta beste gure mendi maiteen kolkoetan Jaungoikoa eta Maria alabatzen (*Patxi ta Kontxexi*, 1884).



Kutxa Fototeka

Baserritar familia bat, Arzakek hainbestetan kantatzen dituenen antzekoa

Hala bada, baserritar eta arrantzaleak (po-break, baina beren buruen jabe, libreak eta nobleak), euskaldunen arketipoak, dira Arzaken pertsonaiak; inoiz, erdi arrantzale, erdi baserritar, *Aztuako* pertsonaia nagusia bezala:

Sekulan etzait aztuko Ondarribiko seme, erdi baserritar erdi arrantzale, aiton buruzuri errespetagarri bati entzun niona, txikia nintzala, neguko gau ekaitztsu batean, errosarioa esan ondoren, sukalde txokoan

alkitxo batean pipa erreaz zegola, illobatxo ingurutua, matsa zortena ale ederrez bezela.

Esan zigun: [...] gizonak izan litzaken egiazko atsegiñetatik bat da sufritzen dutenakin sufritzea.

Ez dago gizabanakorik, ereduak daude, ideien hezur-mamitzeak.

Arzaken obran hain pisu handia duen natura ere, ez da objektibotasunez deskribatzen:



Arrantzaleak Donostiako kaian (garai hartan *el barrio de la jarana* deitzen zioten kaiari). Garrantzizko lekua dute arrantzaleek Arzaken lanean: Zuetako bakoitzian Mari bat agertzen zan nere begiyetan, zerua goian, ura bian, ta bularrian eziñ kabitu alako biyotz banarekiñ! O, bai! Zer aundiya, zer ederra zeran, itsas-gizona!

nolakoak diren egilearen sentimenduak, halakoa da izadia:

Prestatu ziran prozesioa allegatu zaneke eta, arganaturik, abiatu ziran errosario santua kantari errezatzen.

Aloña, Urbia eta inguruko mendi guztiak ziruriten Arantzazuko Ama Birjiñari Jaunak emantako iñork bota ez lezaken eliza aundi baten paretak; eliz onen tellatua zan zeru urdiña; mendi loreak botatzen zuten usaia zan intzentsuarena baño gozoagoa; eta okillen ai-aiak, pirripiyuen txirriak, karnaben txirutxirak, ifar aize atsegin batek urrutitik zekartzkien joale soñuak, ardi umillen beadiak eta aingeruena zirurien kanta samur eztitsu bat nastutzen ziran miragarriro gure kantarekin, sorterazorik, nik eztakit nola, lurrekoa etzidurien musika zoragarri bat (*Patxi ta Kontxexi*, 1884).

Tristea, samina da Arzaken obra, halakoa baita euskaldunen egoera, eta halakoa, Ebaren seme erbestetuon bizitza. Bada, baina, pozteko arrazoirik, Jainkoaganantz, zerurantz begiak jasotzen baditugu:

O nere Euskal Erria! [...] jartzen dizkigutzu aurrean, lotsaturik bezela, ai!... lengo zure seme leial gure guraso maiteen Lege zarra, kondaira onragarria, fede osoa, antziñeko oitura garbiak, eta, batez ere, oek guztiak baño geiago balio duten gaurko eguneko penak! A!... Zorioneko penak, bai! lurretik zerura altxatzen gaituztenak (*Gauzik ederrena*, 1883).

Bai! Obia, bere ixiltasun, illuntasun, motel-tasun eta ar utsakin, da gure egiazko seaska; eta, seask'artan esnatzen garenean, a!... ez da izango geiago Euskal Erririk!... Baña Jaunaren miseriak emango digu betiko Zeru-erria! Eta euskaldunak ez degu naiko gauza bat besterik; bakarrik maitegarria: Jesus! (*Seaskatik obira*).

Bukatzeko, hitz bi, Arzaken hizkuntzaz. Gipuzkeraz idazten du, noski; neurri batean, Donostiako hizkeran, bere akats eta aberastasunez. Baina, neurri batean bakarrik, bai baititu zenbait ezaugarri gipuzkera ez ezik, beste euskalkiak ere ezagutzen zituela aditzera ematen dutenak.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- *Kutxa Fonotekari*
- *A. Zabala, «Antonio Arzak, idazlan-sorta», Auspoa liburutegia 233 zenb., Oiartzun, 1995*
- *Manuela López Alén, «El Titanic y Yo»*
- *P. Urkizu, «Euskal Antzertia», Euskadiko Antzerti Zerbitzua. Donostia, 1984*
- *A. M.^a Labayen, «Teatro Euskaro I». Auñamendi saila. Donostia, 1965*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2004ko azaroa

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde (g.b.)

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2181-X (Lan osoarena)
84-457-2183-6

L.G.: BI-2959-04